



3 XIRIMIRI

Auziaren irakurketa eta Xirimiriri elkartasuna

Xirimiri elkarteko kide eta lagunek agerraldia egin zuten ostegunean. Honetan Auzitegi Nazionalak ekainean berretsitako erabakiaren irakurketa egin zuten. Desjabetzearen aurka agertu eta zigortutakoen absoltuzioa eta herriko tabernen zigorraren indargabetzea eskatu zuten. Era berean, elkarteari elkartasuna adierazteko hainbat ekintza egingo direla jakitera eman zuten; hala nola, sinadura bilketa.



Buruhandiak edo haurrentzako tailerrak izan ziren goizeko lehen orduetan Oriako auzoan. Eguerdian, berriz, Karmango Amaren ohorezko meza izan zen. Lepo bete zen.



Oriatarren egun handia

Auzotar eta herritar ugari hurbildu zen ospakizunetara

5 ARTISAUTZA

Santa Anako XXXI. eskulangintza azoka jendetsua

Eguraldi ona lagun, hainbat herritar hurbildu ziren atzo XXXI. eskulangintza azokara, egun osoan zehar. Ia 60 artisauek etorri ziren Okendo eta Antonio Mercero plazetara produktuak saltzera. Luis Irizar sukaldari ezaguna omendu du aurtun Sendoki Kultur Batzordeak; eskuz egindako labana eman zion Cesar Bozal herriko artisauek.



Karmango amaren eguna izan zen joan den asteko ostegunean eta oriatarrek ederki ospatu zuten auzoko zaindariaren eguna, baita kaperaren 75. urteurrena ere. Aurtengo jaietan gainera, oriatarrek On Ramon Uribe-Etxebarria apaiza omendu dute.

Goizeko hamarretan hasi ziren Karmango Amaren ohorezko ospakizunak ostegunean Oriako auzoan. Villabonako Solano taldearen trikitilariak alaitu zuten auzoa eta buruhandiak ere atera ziren kaleetara.

Haurren gozamenerako tailerrak ere izan ziren. Globoflexia, apaintzeko objektua edo pultserak egin ahal izan zituzten gaztetxoek.

Ohiko meza nagusia oriatarrez lepo zegoen. Izan ere,

ospakizun bikoitza baitzuten, haien zaindariaren eguna eta kaperaren 75. urteurrena. Udal ordezkariak ere bertan izan ziren.

On Ramon Uribe-Etxebarria, Juan Luis Murua, Xabier Andonegi eta Ibon Alberdik eman zuten meza Pilar Catalina eta Amaia Lizarraga sopranoek girotua izan zen. Hala nola, Cesar Francken 'Panis Angelicus' Gerardo Rifon organo jolearen laguntzaz. Goikouria familia ere izan

zen txalaparta jotzen eta Solano taldeko lagunek agurrak dantzatu zuten.

On Ramon Uribe-Etxebarria eskerrak eman zizkien oriatarrei omenaldia egiteagatik eta 2003an kaperari itxi eta Udalaren eta oriatarren laguntzaz berriro ere ireki ahal izan zela gogoratu zuen.

Mezaren ostean, oriatarrek solasaldirako tartea izan zuten luntxean eta ohiko oriatarren bazkariak gozatu zuten jarraian, 'El jardin' jatetxean. Bertan On Ramon Uribe-Etxebarria apaizari omenaldia egin zitzaion.

Haurrak eta dantza

Baina ez ziren bazkariarekin ekintzak amaitu. Arratsaldean,

puzgarriak eta globo gerra izan ziren Brunet-enea parkean.

Dantzarako tartea ere izan zen. Orian sortutako Sorgin dantza ikusteko aukera izan zen. Kaperari ondotik atera eta parkera kalejira egin zuen zortzikoteak eta animatu ziren herritarrek bertan dantzatzera.

Eta jaietako amaiera emateko, Ibai Berriak taldeak dantzan jarri zituen Brunet-Enea parkean hurbildu ziren herritarrek.

Jai hau Basaundi auzoan hilabete amaieran izango diren San Inazio jaien aurrekari izan da. La Esperanza elkarteak herritarrei hauetan ere parte hartzeko gonbita egiten die eta batez ere, haurrei.



Oriatarren bazkaria baino lehen luntxean solasaldian hasteko aukera izan zuten auzotarrek. Arratsaldean, Oriako Sorgin Dantzaz gozatzeko aukera izan zen Brunet-Enea parkean.



Etorri gure eskaintzak ezagutzera eta baliatu gure tratu profesional eta pertsonalizatuaz

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
 - Instalazio elektrikoak



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxe: 943 372521

Zorion agurrak

Heriotzak Jaiotzak



Diana

Familia guztiaren partetik Zorionak Princess!!! Dagoeneko bi eskuak pasa dituzu! Ondo pasa, mila muxu.



Oier

Zorionak txapeldun zure 8 urtebetetzeari, Nora, ama eta aitaren partetik. Muxu potolo bat!!



Aimar

Zorionak etxeko erregeari bere lehenengo urtebetetzeari. Muxu asko gurasoen partetik!!



Enara

Zorionak Enara!!! Dagoeneko 10 urte betetzen dituzu. Ondo pasa!!! Muxu pila bat familiaren partetik.



Izar eta Malen

Zorionak polittak! A ze merendola goxoa pres-tatu genuen zuen 3. eta 9. urtebetetzeari ospatzeko! Muxu pila zuen familiaren partetik.



Itsaso

Zorionak familiaren partetik zure 6. urtebetetzeari!! Oso ondo pasa eta disfrutatu zure egunean!! Mila muxu.



Alex

Zorionak txapeldun zure 8. urtebetetzeari!!! Muxu handi bat zure familia osoaren partetik.



Oihane

Zorionak maitia ondo ondo pasa zure zazpi-garren urtebetetzeari, muxu handi bat denon partetik.



Unax

Zorionak gure kuttuna, urte osoan zehar zurekin barre egiten, eskerrik asko. Gurasoak, Iraide eta aiton-amonaren partetik.



Eneko

Zorionak Txapeldun!!! 8 muxu potolo Maren, ama eta aitaxoren partetik. Oso ondo pasa maitia!!!




Oihan

Zorionak etxeko bitxituari. 3 muxu pottolo aita, ama eta Naroaren partetik. Oso ondo pasa zure egunean.



Izaro

Ondo pasa zure zazpi-garren urtebetetzeari. Muxu handi bat!



Ander

Zorionak txapeldun, zure 8. urtebetetzeari! Nerea, Gorka eta Arey.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Jaiotzak

- Ibai Olazabal Gutierrez, uztailaren 11an.
- Iria Gonzalez Alvarez, ekainaren 30an.
- Miren Sanchez Hernandez, ekainaren 29an.



Heriotzak

- Daniel Elguezabal Uriarte, uztailaren 9an, 68 urte zituela.
- Sofia Gutierrez Hernando, uztailaren 4an, 86 urte zituela



Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Hiru balkoi eta dena kanpoaldea. Tlfnoa: 670 07 05 62
- Apartamentua alokatzen da Finestrat senaduan, Alacant. Uztaileko bigarren hamabostaldia eta irailetik aurrera. 667 73 14 56.

Lan-eskaria

- Garbiketa edo zaintza lana bilatzen dut, orduka edo externa modura lan egiteko. Esperientzia dut. Margarita. 683 18 42 73.
- Garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zaintzen interna edo externa lan bila. Harremanetarako, 631 60 50 18.
- Emakumea eskaintzen da interna zein externa moduan lan egiteko. Erreferentziak ditu. Harremanetarako, 602 59 67 35.
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut,

zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. Harremanetarako telefonoa, 600 76 60 68.

- Emakumea eskaintzen da orduka jende eda-detua eta haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Harremanetarako, 620 52 80 53.

Bestelakoak

- Trasteleku bat behar da Oria aldean, Basaundi bailaran. 636 57 67 20.
- Pisua alokatuko nuke Lasarte-Orian abuztuaren 3. astean, 17tik 23ra. Irune, 620 02 66 76.
- Ingelesko irakaslea behar da uztaila eta abuztuan klaseak emateko. 943 36 00 42.

Farmazia Goardiak


EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Astelehena, 20 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652	Astelehena, 27 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astearte, 21 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151	Astearte, 28 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 22 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774	Asteazkena, 29 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Osteguna, 23 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529	Osteguna, 30 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Ostirala, 24 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549	Ostirala, 31 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 25 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774	Larunbata, 01 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Igandea, 26 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774	Igandea, 02 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elcano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Diruz lagutzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidier Azurmendi, Nerea
Eizagirre, Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maidier Seguroa,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

XIRIMIRI

Xirimiriren aldeko ekintzak

Sinadura kanpaina abiatu da elkartearen alde

Xirimiri ixteko aginduaren aurrean, sinadura bilketa abiatu dute eta ostegunean Lucio Urtubiaren hitzaldia izango da elkartearen 19:00etan. Elkartasun ekintzak dira eta herritarrak hauetan parte hartzea deitzen dituzte bazkideek.



Ostegunean egindako agerraldian herritar asko bildu zen.

TXINTXARRI

Euskal Herritarrok urte luzez gatazka eta sufri-mendua bizi izan ditugu. Azken urteotan emandako urratsek eta sortutako testu-guru berriak, justizian eta bakean oinarritutako etorkizun baterako aukera zabaltzen dute”, hasi zen esaten Liher Unanue, ostegun arratsaldeko agerraldian.

“Eragile politiko eta sozialak zein norbanakoek emandako urratsek ekarri gaituzte egoera honetara. Etorkizuna eraikitzen jarraitzeko, ezinbestekoa da denok erantzukizunez jokatzeko. Bide horretan, lekuz kanpo daude konponbidea oztopatzen duten prozesu judizial, desjabetza eta debekuak”.

Ekainaren 18an Auzitegi Gorenak 107 herriko tabernaren aurkako sententzia berretsi zuen, Xirimirirena tartean. Sententzia hau exekutagarria da; edozein momentutan elkartearen desjabetza gerta daiteke.

Xirimiri duela 26 urte ireki zen, “ezkerreko eta abertzale izaerarekin, elkarte gastronomiko eta kultural moduan. Bertatik amets eta ideia ugari gauzatu ahal izan dira urte guzti hauetan eta hainbat erakunde eta eragile ezberdinek erabili dute: Independentziaren aldekoek, munduko herri zapalduen alde aritu direnek, langileen eskubideen alde borrokan dihardutenek, talde feministek, ingurugiroaren defentsan lan egin dutenek, euskara eta bere erabilera gure herrian indartzen aritzen direnek, preso politikoaren eskubideen defentsan lanean ari direnek, eta zerrenda amaiezin bat osatuko luketen beste hainbat eragile sozial eta kulturalak”.

Gogoratu zuten milaka lasarteoriatar izan direla bertatik pasatakoak: “Urteetan zehar Xirimiri elkarte era guztietako

herri mugimenduaren erreferentzia eta bitarteko bizi bat izan da”.

Sententziaren aurrean kontrako jarrera azaldu, zigortutakoan absolutioa eta herriko tabernen zigorraren indargabetzea eskatu zuten baita ere, sententzia horrek eragiten dituen kaltetu guztiekiko elkartasuna adieraziz.

Ekintzak

Xirimiriri elkartasuna erakusteko hainbat ekimen iragarri zituzten. Sinadura bilketa zabal bat hasiko dute. Herriko ekitaldi jendetsu guztietan egongo direla iragarri, azoka, pintxo potea, San Inazio, Santa Ana egunetan besteak beste.

Horretaz gain, ostegunean 19:00etan Xirimirin Lucio Urtubia anarkistarekin solasaldia prestatu dute. Herritarrak ekintza horietan parte hartzea animatu dituzte.

UDALBATZARRA

MUGIn integrazteko pausoa

Astearteko ohiko batzarrean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde agintaritzan integraztea erabaki zuten alderdiek. Horrela Mantangorri MUGI txartelarekin ordaindu eta honen deskontuez baliatu ahal izango da. Bozkatzerakoan, 13 aldeko bozka eman zituzten PSE-EE, EH Bildu, EAJ eta PPko zinegotziek eta Lasarte-Oriak Ahal du-ko hiru zinegotziak abstenitu egin ziren.

Estitxu Alkorta esan zuen batzordean abstenitu egin zirela kontu hartzailearen txostena falta zelako. Hau aurki egingo delakoan, alde egitea erabaki zuten plenoan. Bestalde, Lasarte-Oriak Ahal du-ko Arkaitz Nayak aurreko legegintzalditik datorren lanketa izaki, hau aztertzeko nahikoa denbora ez zutela izan argudiatu zuen.

EH Bilduko Pablo Barriok, erabaki hau Zerbitzuen sailean aurreko legegintzaldian egindako lanaren emaitza zela aipatu zuen. “Udalera sartu ginenean duela lau urte, autobus zerbitzu alegal batekin aurkitu ginen. Hau arautu eta legal bihurtzeko lan handia egin zuen Ana Prietok. Oraingoa azken pausoa da zerbitzua herritarrentzat hobea izan dadin eta aspaldi eskatzen zuten moduan, txartelarekin ordaindu eta deskontu sistemaren abantailak izateko”.

Erakundearen herriko ordezkaria Jesus Zaballos alkatea eta honen ordezkaria, EAJko Jon Antxordoki izatea bozkatu zuten jarraian. Alde bozkatu zuten PSE-EE eta EAJko zinegotziek, Kontra EH Bildu eta Lasarte-Oriak Ahal du eta abstenitu egin zen PPko zinegotzia. Horrela izanda, anartuta geratu ziren ere bi ordezkariak. Alderdiek hainbat galdera egin zituzten alkateari eta horrela bukaera eman zioten ordu erdiko iraupena izan zuen plenoari.

DIRU-LAGUNTZAK

Kultura eta hezkuntzako laguntzak eskatzeko azken egunak

Lasarte-Oriako Kultura eta Hezkuntza sailak gogorazten du hurrengo astean, ekainaren 30ean, kultura eta hezkuntza jarduerak egiteko diru-laguntzak eskatzeko epea amaitzen dela.

Laguntza hauek guraso-elkarteek garatzen dituzten eskola-orduz kanpoko eta/edo izaera osagarriko jardura hezigarriak aurrera eramateko helbururarekin eskaintzen dira. Hau da, ikasleei zuzendutako eskola-orduz kanpoko jardura eta/edo programa hezigarriak eta gurasoen prestakuntza garatzeko ekintzak diruz lagunduko dira, beti ere, Lasarte-Oriako Udalak egiten dituen ekimenen osagarriak edo ordezkioak direnean.

Eskabideak Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, edo horretarako legez ezarritako beste edozein lekutan.

Kultur kale zikloa udan

Herriko Psicoacoustic taldearen kontzertuarekin eman behar zitzaion hasiera larunbatean Kultur Kale Ziklo berriari. Ekaitz arriskuagatik bertan behera geratu da baina zehazteke dagoen beste data batean egingo da.

Aurreko astean egin zen zikloaren aurkezpena. Kultur Kale zikloa 2012an sortu zen ordura arte Manuel Lekuonako kafetegian egiten ziren kontzertuen lekukoa hartuta.

Zikloaren helburua Jesus Zaballos alkateak azaldu moduan, herrian kultur jarduerak egiteko bide berriak irekitzea eta aldi berean, artistei euren lanak ezagutzera emateko baliabideak ematea izan da. Jokin Telleriak azpimarratu zuenez, 2013an kontzertuak kalera ateratzea erabaki zen eta horietara jende gehiago gerturatzen zela ikusita, hala mantentzea erabaki da.



Uda sasoiaren kultur ekintzak kalera ateratzeko apustua.

Egitaraua

Abuztuaren 1ean, Transistores Bilboko taldearen rockabilly doinuak entzun ahal izango dira Tximistarreta parkean. Abuztuaren 29an berriz, James room & Weird Antigua taldeak folk ukitua duten kantak eskainiko ditu Okendon.

Azken kontzertua irailaren 12an izango da Mery

May & The Muppets taldearekin. Indie estiloko musika da taldeak ekarriko duena Telleriak aipatu duenez.

19:30ean hasiko dira emandako guztiak. Eguraldi txarra dela-eta kontzerturen bat bertan behera uztea erabakiko balute, antolatzaileek lehena emango lukete horren berri.



Euskara enpresetan sustatzeko hitzarmena

Aldaz enpresarekin hitzarmena sinatu zuen udalak ostegunean. Alkatea pozik azaldu zen programa honek euskararen erabilera sustatzeko duen balioagatik eta inplementatzeko orduan, herriko enpresei tresnak eta baliabideak eskaintzen dizkielako euskaraz hitz egin nahi duten eremu gehiago izan ditzaten.

Baietz Gurean! egitasmoaren baitan Aldazek urtebeteko lanketa egingo du euskara enpresako alor gehiagotara eramateko. Lanketa horren araberrako diru laguntza bat jasoko

du, finkatuta dauden puntuazioaren arabera.

Bestalde, Euskara batzordeko lehendakari den Jon Antxordokik gogoratu nahi izan zuen abian direla herrian egoitza soziala duten elkarte eta enpresak haien edozein jardura euskalduntzeko diru laguntzen deialdia. Errotuluak, irudi korporatiboak, web-orriak, dokumentazioa etab. euskaratzeko udalaren laguntzak.

Azaroaren 1etik urriaren 31 bitartean egindako jarduerak lagunduko dira. Informazioa udaleko webgunean edo 943 37 61 84 telefonoan.

1. Ibilbidea:

Azkorte eta Santa Barbarako ermitak

Denbora:

2 ordu eta 50 min (zirkularra)

Distantzia:

10,8 km

Desnibela:

220 m

Buruntza mendira (441m) igotzen ez bada ere, honek erreferentzi-puntu bezala balioko du. Eskualdeari izena ematen dion mendia da eta ibilbide honetan herri ezberdinetako eremuetan ibiliko gara.

Lasarte-Oriako udal zahararren parean eta San Pedro elizaren ondotik gorantz doan bidea hartu beharko da. Eskualdeko ibilbide baten marka urdin eta horiak

jarraituz. Biribilgunea pasa eta autobia azpitik igarota, eskubira egiten dugu Azkorte-Andoain kartelak jarraituz. Andoain eta Donostia batzen zituen trenbideko ibilbidea da hau. Kaxkarroko tunela pasa eta Oria auzotik doan bidearekin bat egingo dugu. Ezkerreko bidetik egin eta Azkorte bidegurutzeraino iristen gara. Puntu honetan eskubira jo eta baserri baten ondotik igarotzen den pista bat hartuko da, honek erraz lokazten den eremu bat du eta mendi-magaletik Burundaineko muinora iristen gara, honetan Azkorte ermita dago. Urnietako herriaren ermita 1970. urtean eraitsi zen harrobiko lanak zirela eta. Urte batzuk geroago 100

metro beherago eraiki zen berria zelaietan, non urtero maiatzaren 3an Santa Krutz egunean erromeria ospatzen den. Ermitan Azkorte Kristoaren taila gotiko bat dago, XIII. mendekoa.

Pista asfaltatutik jaitsi, baserri batzuen ondotik pasa eta Lasarte-Oria eta Urnieta batzen dituen bidearekin bat egiten da. Ezkeraldera hartu eta igotzen goazela, bihurtune bikoitz baten ostean Elutxeta sagardotegirako bidea aurkituko dugu. Sagardotegia atzean utzita, bidegurutzear aurrera hartuko dugu Santa Barbarako gotorlekurantz. Bertan Agerreburuko haitzean dagoen ermitara igo daiteke, non eremuko panoramika ederra dugun. 1793



urteko gotorlekutik ateratzen gara gure sarrera atearen parez pare dagoen beste atetik eta pinutegitik jaisten gara Saretxo jatetxeraino. Aurretik, Hernanirako bidea alde batea utzi eta baserri itxura duen ur deposito baten ondotik pasako gara.

Jatetxearen aparkalekutik igo eta Jauregiko bailararen zati handi bat ikusi ahalko

dugu. Eskubetik jaisten jarraituz eta baserri batzuk saihestu ostean, Lasarte eta Hernani arteko bidera iritsiko gara.

Ezkerretik jarraitu eta pixkanaka Zabaleta auzora jaisten joango gara eta behe-rago jarraituz, Lasarte-Oriako erdigunera iritsiko gara. Landa-inguruan egindako txango ederra da hau.

Udan egiteko mendi ibilbideak

Azkorte eta Santa Barbarako ermitak eta Zubietako haraneko ibilbideak familian egiteko aproposak

Euskal Herrian mendizaleak gara eta asko dira mendi eta ibilbidei buruz idatzitako liburuak. Jesus M. 'Txusma' Perez Azaceta herritarrek horietako batzuk idatzi ditu eta liburu berria aurkezten du. Honetan Euskal Herriko 57 mendi ibilbide azaltzen ditu eta Lasarte-Oriatik hasita familian egin daitezkeen bi ibilbide aurki ditzakegu.

5 7 rutas senderistas por Euskal Herria" da Jesus M. Perez Azacetak argitaratu berri duen liburua. Honetan Euskal Herriko eskualde bakoitzeko ibilbide

bat txertatu nahi zuen egileak eta Lasarte-Oriarekin zer ikusia duten bi bide txertatu ditu. "Buruntzaldean polita iruditu zitzaidan Azkorte eta Santa Barbarako bi ermitak batzea

eta Buruntza mendia presente egotea. "Donostialdeari dago-kionez, ibilbide ezagunenak alde batera utzi nahi nituen". Horregatik aukeratu zuen Zubietako eta Oriako ibarra,



azaldu digu mendizale eta idazleak.

Honetaz gain, bere aburuz, bi ibilbide hauetan gustoko dituen txokoak ere aipatu dizkigu, "Buruntza mendia eta bere inguruak gogoko ditut. Baina txoko bat aukeratzekotan Santa Barbaratik Saretxorako irteera eta

bidea eta Zubietako ibilbidean, Txokoaldetik San Estebanerako igoera".

Ibilbide hauek errazak direla eta desnibel txikia dutela aipatu digu, "familian egiteko aproposak. Ipar martxa egiten hasi direnentzat ere interesgarriak dira. Liburuan ibilbide ugari daude kirol hau egiteko aproposak".

Gainera, ibilbideez gain lekuei buruz datu historikoak edo interesekoak ere eskaintzen ditu, "beti gustatu zait ibiltzen naizen lekuetako historia edo kultura ezagutzea, baita bertako jendearekin hitz egitea ere. Horregatik nire liburuetan horrelako datuak txertatzea gustatzen zait".

2. Ibilbidea:

Zubietako harana

Denbora:

2 ordu eta 35 min (zirkularra)

Distantzia:

8,3 km

Desnibela:

85 m

Donostiako Zubietako auzoak Oria ibaiko ibar oparotik ibilbide atsegina egiteko aukera ematen digu. Zubietako, Donostia eta Usurbilen parte da.

Txango zirkular erraz hau Zubietako frontoian hasten da, Santiago Apostoluaren eliza ondoan dagoena. Kale Beri etxearen ondoan, Berri-di bidetik hasten dugu gure ibilbidea. Barazar Ostua pasa eta eskubira egiten

dugu Irigoien kaletik. Aurrera egiten dugu Usurbilera garamatzaten kartelak kontuan izanik eta Iruin-Astiazaran sagardotegi ondotik pasatzen gara. Lertxundi baserrira iritsi baino lehen, ezkerrean hartzen dugu Lasarte-Oria eta Usurbil batzen dituen marka hori eta laranjak jarraitzeko asmoz. Andatza mendira doan Done Jakue bidea utzi eta eskubirantz egiten dugu baserri eta larre artean doan harri txintxarreko bidea hartuz. Ibaixka bat igaro ondoren, asfaltora iristen gara eta Usurbil alde-rantz egiten dugu.

Usurbilgo Santuenea auzora iristen gara eta Oria ibaiaren ertzetik jarraitzen dugu bidea. Auzoa ezke-

rrean uzten dugu eta baratze batzuk gure eskubitara trenbidea zeharkatuz. Gure bidean aurrera egingo dugu eremu lau eta erostik. Gora igotzen den bidea ezkerrean utzi eta Aginagara garamatzaten seinaleak jarraituko ditugu. Txokoalde auzora iristean, ezkerrean egingo dugu Andatza menditik jaisten den ibaixka baten bidea jarraituz. Pixkanaka igotzen joango gara. Saltxipi jatetxea ezkerrean utzi eta aurrerago Urdaiaga errota baserri-errota. Zubi txiki bat zeharkatu eta honetatik urjauzi txiki eta polit bat ikusi ahal izango dugu. Gure bidea jarraitu eta Zabalea landetxera iritsi baino lehen, eskubira hartuko dugu landarez betea



dagoen eta bere erdialdean harri artean barrunbea duen parke bat zeharkatuz. Gorantz egiten dugu orduan eta San Esteban auzora iristen gara. Bere gainean ermita dago.

Jaitsiera beste isurialdetik egingo dugu Urtinea lorategiaren ondoan dagoen haur parkea alde batera utzita. Santuenea auzora itzultzen

gara eta hemen Zubietako erdigunera eramango gaituen landa bidea hartuko dugu baserri artetik. Plaza ondoan eta frontoiaren parean, non aurrez aurre dauden bi paretan erreboteko joko ikusgarria jokaten den, Aizpuru baserria ikusi daiteke. Duela 200 urte, Donostia suntsitu zuen sutearen ostean hiriaren berre-raikuntza erabaki zen bertan.



60 postutik gertu ikusi ahal izan zituzten herritarrek atzoko Santa Anako XXXI. azokan.



Hainbat herritar hurbildu ziren egun osoan zehar Santa Anako azokara.

XXXI. eskulangintza azoka herrian

la 60 artisau etorri ziren Okendo plazara atzokoan

Giro ederrean ospatu zuten atzo XXXI. eskulangintza azoka, igande honetako Santa Ana egunaren aurrekari gisa. Eguraldi ona lagun, hainbat herritar hurbildu ziren Okendo plazara. Bertan izan zen baita ere Luis Irizar sukaldaria; labana jaso zuen Cesar Bozal herriko artisauaren eskutik.

XXXI. Santa Anako eskulangintza azoka ospatu zen atzo Okendo plazan. Sendoki Kultur Batzordeko kideek antolatu zuten, Udaleko Kultura sailarekin elkarlanean. Elikadura arloko eta artisautza barruko hainbat diziplinetako artisauak batuz ia 60 postu jarri zituzten atzo: horietako 27k Antonio Merce-

ro plazan jarri zituzten postuak; plazan bertan aritu ziren produktuak saltzen beste 26 eta arkupeetan jarri ziren Paco Altuna eskultorea, Zurlan mailu zurlanketa taldeko kideak eta 15 bolillera.

Eguraldi paregabea egin zuen atzokoan eta hori baliatuz hainbat herritar hurbildu ziren azokara egunean zehar.

Luis Irizarri omenaldia

Euskal Herriko sukaldari ezagun bati eman zion eskuz egindako labana Cesar Bozal herriko artisauak. Luis Irizar izan da aurtengo omendua.

Sendokiko kide Ramon Ormazabalek omenaldira joatea eskertu eta sukaldaritzaren munduan Irizarrek egindako lana goraiatu zuen. Jesus Zaballos alkateak esan zuen bere lanagatik izan ez balitz Euskal Herriko sukaldaritzaren litzatekeela berdina izango. Irizarrek berak eskerrak eman eta azokaz gozatzera gonbidatu zituen herritarrek.



Elikadura esparruko 27 artisauak postuak jarri zituzten atzo Antonio Mercero plazan.



Cesar Bozal artisauak labana eman zion Luis Irizar sukaldariari; argazkia atera zuten gero udal ordezkari eta Sendokiko kideekin.



Denetarikoko produktuak ikusteko eta erosteko aukera izan zuten herritarrek atzo.



Sebastián Redondo

**ITURGINTZA
GASA
KALEFAZIOA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ERABERRITZEAK**

DUCHALASARTE

24 ordutan, bainuontzia dutxagatik aldatzen dugu



JAIZKIBEL ENPARANTZA 8 BEHEA, SASOETA AUZOA • TEL.: 943 371845 // 652 775373

HIPIKA.

Igandean hasiko da zaldi lasterketen udako sasoi

Casino Kursaal sariak irekiko du denboraldia; Urrezko Kopa abuztuaren 15ean jokatu da

“Kolokan” egon da Hipodromoko zaldi lasterketen udako denboraldia. Espero baino beranduago, baina azkenean egingo dela iragarri du Donostiako Udalak. Igande honetan hasiko da, hilaren 26an, eta irailaren 11n bukatu. Tartean, 43 lasterketa zortzi jardunalditan. Uztailean jokatu da lehen, beste bost abuztuaren eta irailean azkeneko biak.

TXINTXARRI

Lasaitu ederra hartu zuten turf-zaleek iragan astean, Donostiako Udalak iragarri zuenean zaldi lasterketen udako denboraldia igande honetan hasiko zela. Madrillgo ‘La Zarzuela’ hipodromoan lasterketarik gabe geratu ziren martxoan eta zale, profesional eta elkarte desberdinak beldur ziren Hipodromoan ez ote zen antzeko zerbait gertatuko. Kostata, baina ados jarri dira azkenean Donostiako Udala eta hainbat elkarte.

SFCCE Zaldien Heziketa Sustatzeko Elkarte da horietako bat. Berak erregulatu ditu zaldi lasterketak azken urteotan, baina zorrak direla eta hartzekodunen konkurtsoan sartu zen 2014 amaieran. Horrez gain, elkarteari botere erregulatzailer hori ematen zion hitzarmena abenduaren 2an amaitu zen.

SFCCEk esan zuen bideragarritasun plan bat bazeukala, bazituela baliabideak bere

lanarekin jarraitzeko, baina lasterketak erregulatzen jarraitu behar zuela horretarako. Horren aurrean, Espainiako Hipodromoen elkarteak adierazi zuen SFCCEk ez zeukala gaitasun nahikorik zaldi lasterketak erregulatzen jarraitzeko. 2014ko abendua zen.

Zaldi lasterketarik ez dago horiek erregulatuko dituen elkarerik ez badago. Horren harira, akordio batera iritsi ziren otsailaren 6an SEPI Partizipazio Industrialen Espainiako Sozietatea eta CSD Kirolen Kontseilu Nagusia. Hipika Federazioak erregulatuko zituen lasterketak; La Zarzuelako eta Hipodromoko lasterketak salbu zeuden.

Akordiora iritsi arren, sinadura atzeratu egin zen; azkenean, Hipika Federazioak eta SFCCEk adostu zuten azken honek egitea lan horiek ordu arte bezala, denboraldia gehiago ez atzeratze aldera.

La Zarzuelako hipodromoak ez zuen ebazpen hori onartu eta lasterketak bertan



Igande honetan bueltatuko dira zaldi lasterketak Hipodromoan; udako denboraldia hasiko da.

behera geratu ziren. Hipodromoak ere bazuen arrisku hori, ez baitzegoen argi noren esku zegoen lasterketak erregulatzeke boterea. Donostiako Udalak udako denboraldia gauzatzeko asmoa adierazi eta elkarte horiekin guztiekin bildu zen. SFCCEk erregulatuko ditu azkenean lasterketak. Kostata, baina ados jarri dira alde guztiak azkenean.

43 lasterketa udaran

Casino Kursaal sariak irekiko du udako denboraldia, igande honetan. Abuztuaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundia-

ren saria jokatu dute; Maria Cristina saria berriz, abuztuaren 9an. Zita garrantzitsuenetako bat 15ean izango da; Urrezko Kopa jokatu da. Eusko Jaurlaritza sariaren txanda izango da 23an, eta Nazioarteko Criterium-a 31n jokatu dute.

Irailean izango dira sasoi-ko azken bi jardunaldiak, 7an eta 11n. Azkeneko horretan jokatu dute Donostia Saria. Aipatutako sariez gain, beste hainbat lasterketaz ere gozatu ahal dute zaleek jardunaldi horietan guztietan. Hastear da udako denboraldia.

Mendeurrena 2016an

Udako denboraldia antolatu izanaz gain, Hipodromoak baditu pozteko beste arrazoi batzuk ere: 100 urte beteko ditu datorren urtean. Donostiako Udaleko Sustapen zinegotzi Ernesto Gascok horri buruz hitz egin zuen joan den astean: “Estatuko osoko turfaren hiriburu bilakatuko da Hipodromoak. Horrez gain, datorren urteko mendeurrenarako prestatzen hasi da jada. 100 urte horietan zehar zaldi lasterketei urtero eutsi dien bakarria izango da Hipodromoak”.

ATLETISMOA.

“Oso pozik” dago Eneritz Busto Calin egindakoarekin

Atleta gutxi askok kontatu dezakete jubenilen munduko txapelketa batean hartu dutela parte. Eneritz Busto herritarra da horietako bat.

Uztailaren 15etik 19ra bitarte jokatu da munduko txapelketa. 100 metro hesietako diziplinan hartu du parte Bustok, eta ezin izan zuen finalerdietarako sailkatu. 14,36 segundoko denbora egin zuen; zazpigarren postua

eskuratu zuen bere seriean, uztailaren 15ean.

Marka pertsonala hobetzerik izan ez badu ere, bizitako esperientziarekin “oso pozik” dagoela adierazi du herriko atleta gazteak. “Hurrengo kanporaketan ez sartzeak penatu ninduen, baina gaintzeko guztia primeran joan da: jendea, esperientzia, dena. Oso pozik nago, primeran joan da dena”.



PALA.

Gaur eta bihar jokatu dira Santa Ana pala txapelketako finalerdiak

Fase erabakigarria iritsi da Santa Ana pala txapelketa. Asteazkenean bukatu zen 1go fasea, eta finalerdiak jokatu dituzte orain sailkatzea lortu duten lau bikoteek. Gaur eta bihar jokatu dituzte partidua, Loidi Barren frontoian, arratsaldeko zazpitan. Antolatzaileek esan dutenez, lau bikoteetako edozeinek jantzi dezake txapela.

Jon Pello Artetxek eta Xabi Etxezarretak Bernaitz Odrizola eta Santi Martin izango dituzte parez pare gaurkoan. Lehen fasean neurtu zituzten indarrak bi bikoteek; Artetxek eta Etxezarretak 35-34 irabazi zuten neurketa. Datu horrek ez du askorako balio ordea, bi bikoteek maila ona erakutsi dutelako txapelketa osoan zehar eta edozer gerta daitekeelako kantxan gaur.



Begiristain eta Arteaga Arluziaga eta Astiazaranen aurka ariko dira bihar.

Bihar berriz, Jon Begiristain eta Xabi Arteagak iazko txapelaldunaren kontra neurtuko dituzte indarrak, Xenki Astiazaran eta Iñigo Arluziagaren kontra hain zuzen ere. Lehen faseko partiduan 35-30 gailendu ziren Begiristain eta Arteaga.

Finalerako txartela eskuratzen duten bi bikoteek 26an jokatu dute final handia Loidi Barren frontoian, Santa Ana egunean, igandean. Hori baino lehen, 3. eta 4. postuak erabakitzekeo partidua jokatu dute beste bi bikoteek, 17:00etan.

Euskal Herriko festak Lasarte-Oriako kaleetan

Desfilea egin zuten udako txokoetakoek ostiralean

San Ferminak, Zeledon, Mari Jaia, kaldereroak eta beste hainbat jai ordezkatu zituzten udako txokoetako haur eta begiraleek, ostiralean egin zuten desfilean. Aurrekari gisa egin zuten desfilea gaztetxoek; Manuel Lekuona kultur etxean emanaldia eskainiko dute ostiralean, 11:30ean.

Desfileari Eusko Treneko geltoki parean ekin zioten udako txokoetako haurrek eta begiraleek, ostiral goizeko hamaiketean. Musika ekipoari gupilak jarri, piztu eta ilararen aurrealdean jarri zuten gida modura. Guztia prest izan bezain pronto talde bakoitza bestearen atzean jarri zen eta herriko kaleetan barrena abiatu ziren denak batera giro ederean. Hainbat guraso eta herritarrek kaleetako espaloietatik jarraitu zuten ikuskizuna.

Koloretsua izan zen oso ostiraleko desfilea. Euskal Herrian

ospatzen diren hainbat festetan oinarritutako jantziak eraman zituzten soinean haur eta begiraleek: Zeledon, Mari Jaia, San Fermin, Lekeitioko antzarra, kaldereroak, mamoxarroak, Miel Otxin eta Ziripot... Hainbat festa eta pertsonaia atera ziren Lasarte-Oriako kaleetara.

Okendon amaiera

Desfileko kideek Okendo plazan bukatu zuten desfilea; hori baino lehen ordea, Kale Nagusian barrena ibili ziren. Arkupe taberna alboko biribilgunean buelta eman eta haruntza joan

ziren berriro. Pablo Mutiozabal kaletik jaitsi eta plazara abiatu ziren.

Okendon lehertu zen ostiral goizeko festa: haur eta begiraleek aurreko astean landutako pare bat koreografia dantzatu zituzten ikusleen gozamenarako. Horrela amaitu zuten desfilea udako txokoetako kideek, konfeti eta guzti, berriro taldeka bildu eta Garaikoetxea-Landaberri ikastetxera abiatu aurretik.

Aste honetarako beste emanaldi bat ari dira prestatzen haur eta begiraleak: Manuel Lekuona kultur etxean ariko dira ostiralean, 11:30ean. Ikuskizun horren aurrekari gisa egin zuten desfilea joan den ostiralean. Beraz, ekitaldi horretaz gozatu zuten herritarrek badute hitzordua aste honetarako, ostiral goizean kultur etxean.



Herriko kaleetan barrena desfilean ibili ostean, Okendo plazan lehertu zen festa.



Hamaika jolas, kantu eta kolore ekarri zituen 'Sardina freskue' ikuskizunak Okendo plazara ostegunean.



Ikuskizun paregabea eskaini zuten Malas Compañías taldeko antzezleek ostiral arratsaldean Okendon.

Kale antzerkiak Okendo plazan

Txatarra' antzezlanaren izan zen 'Kale antzerkia bultzatuz' egitasmoak uztailerako antolatutako ikuskizunetan azkena. Ostiral arratsaldean oholtzaratu zuen lana 'Malas compañías' antzerki taldeak; herritar ugari hurbildu ziren Okendora.

Hodi eta taula zahar batzuk erabilia, euren unibertso txikia eraiki zuten hiru antzezleek. Ikuskizunak aurrera egin ahala hainbat elementu barneratu zituzten antzezleek: akrobaziak, umorea, sentimenduak... Denak elkarrekin nahastu eta antzezlan

dibertigarri eta zirragarria eskaini zuen Malas Compañías taldeak ostiral arratsaldean.

Ikuskizuna bukatutakoan txalo zaparrada luze bat eskaini zuten ikusleek hiru antzezleak, eszenatokian egingo dako lan ona sarituz.

'Sardina freskue'

Gogotik gozatu zuten herritarrek ostegun arratsaldean ere, Eidaberen 'Sardina freskue' ikuskizunarekin. Okendo plazara hurbildu ziren herritarrek primeran pasa zuten bost sardinzaleekin batera jolastuz eta abestuz.

Aniztasuna eta alaitasuna ekartzen dituen hamaika koloreko sardina topatzea

zuten helburu sardinzale eta herriko tripulazioak. Arrainak itsasoan bizi dira noski, eta abentura hasi aurretik arraunean ikasi eta itsasontzia eraiki zituzten, besteak beste. Lan nekezak izan ohi dira horiek berez, baina jolas eta abestien bitartez egiten badira dibertigarri eta arin bihur daitezke, ostegun arratsaldean gertatu zen moduan.



Zein leiho jarri erabakitzeke orduan zalantzak dituzu

Materialak, prezioak, zaratak, kristalak, tenperatura, hezetasuna, haizea... Dena da garrantzitsua eta zuk emaitzak ikusi nahi dituzu zure etxerako leiho hoberenak zeintzuk diren jakiteko.

Orientatuko zaitugu inoiz egin bezala



ALCAR VENTANAS

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2 (Lehenko Doble J)
20160- Lasarte-Oria - Gipuzkoa-

TAILERRA
Ibaiondo, 4 semisotano 5-A
20160- Lasarte-Oria - Gipuzkoa

Tel: **943 37 78 68** tienda@ventanasalcar.com
ventanasalcar.com facebook.com/VentanasAlcar

